Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea
Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEA KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEAREN TXOSTENA.**
**1-2024 ESPEDIENTEA**

## 1.Kasuaren inguruabarrak

2024/02/08 – 2024/02/12. Segurtasun Publikoaren arloko prebentzio-lanak Tolosako inauterietan.

2024ko otsailaren 8tik 13ra bitartean, Tolosako Udalerrian Inauteri-jaiak ospatu ziren eta horren ondorioz hiri-erdigunean gazte ugari elkartu ziren. 2024ko urtarrilaren 10ean, Oriako Ertzain-etxeko Tokiko Inteligentzia Bulegoak "2024ko Tolosako Inauterietarako Ekintza Plana 573P24001" dokumentua argitaratu zuen; eta horretan jasota zeuden Inauteri-jaietako egun bakoitzean egin beharreko ekintza eta zeregin zehatzak eta eskura zeuden baliabideen kudeaketa.
Herritarren segurtasunaren arloko prebentzio-lanak egiteko eta jai-ekitaldiak egiten ziren lekuetan izan litezkeen delitu-ekintzen ikerketa errazteko, Oriako Ertzain-etxeak lortu zuen udalerriko leku desberdinetan bideo-grabazioko bost kamera instalatzeko Ertzaintzaren Zuzendaritzaren baimena – 2023ko abenduaren 18ko ebazpena-. Kamera horiek 2024ko otsailaren 7ko 00:00etatik otsailaren 15eko 23:59etara egon ziren operatibo.
Txosten honekin lotuta, garrantzizkoak dira 3 Kamera eta 4 Kamera moduan izendatutakoak. 3 Kamera alde zaharrean kokatu zen, San Frantzisko elizaren alde bateko fatxadan, Soldadu kalean, kale horren eta Beotibar kalearen arteko elkargunean. 4 kamera Arostegieta kalean kokatu zen, Foru plazaren parean, kale horren eta "Gazteluko Atea" monumentuaren arteko erpinean, Kultur Etxea eraikineko hirugarren solairuan. Bi kamera horiek zoom-a eta posizionamendua zeukaten eta Oriako Ertzain-etxean zegoen operadoreak nahi zuen moduan kontrolatu ahal zituen.

**COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO**
**INFORME DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA.**
**EXPEDIENTE 1-2024**

## 1. Circunstancias del caso

-08/02/2024 - 12/02/2024. Prevención de la seguridad pública en las Fiestas de Carnaval en Tolosa.

Entre los días 8 y 13 de febrero de 2024, en el municipio de Tolosa se celebraron las fiestas de Carnaval que congregaron en el centro urbano a un número muy importante de jóvenes.
Con fecha de 10 de enero de 2024, la Oficina Local de Inteligencia de la Ertzain-etxea de Oria publica el documento "Plan de Acción Carnavales de Tolosa 2024 573P24001" en el que se detallan las acciones y tareas a desarrollar durante cada uno de los días de celebración de las fiestas de Carnaval y la gestión de los recursos disponibles.
A fin de prevenir la seguridad ciudadana y de facilitar la investigación de las eventuales acciones delictivas que pudieran cometerse en los lugares de desarrollo de los festejos, la Ertzain-etxea de Oria obtuvo de la Dirección de la Ertzaintza -resolución de 18 de diciembre de 2023- la pertinente autorización para la instalación de cinco cámaras de videograbación en distintos lugares del municipio. Las cámaras permanecieron operativas desde las 00:00 horas del día 7 de febrero hasta las 23:59 horas del día 15 de febrero de 2024.
A los efectos de este informe guardan relevancia las señaladas como Cámara 3 y Cámara 4. La Cámara 3 se ubicó en el casco antiguo, en la fachada lateral de la iglesia de San Francisco, en la calle Soldado, a la altura de la intersección de dicha calle con la calle Beotibar. La Cámara 4 se situó en la calle Arostegieta, frente a la plaza de los Fueros, en el vértice de dicha calle con el monumento "Puerta de Castilla", colocándose en la tercera planta del edificio Kultur Etxea. Ambos equipos contaban con zoom y posicionamiento, pudiendo ser controladas las cámaras a voluntad del

-2024.02.12. 04:11 - 04:16. Intzidentea A. Lekuona kalean.

468A2400003 erreferentziako atestatuan jasota dagoenaren arabera, 2024ko otsailaren 12ko 04:11k inguruan, Oriako Ertzain-etxeko uniformerik gabeko agenteen operatiboaren (Tolosako alde zaharrean zabalduta zegoena) ardura zeukan ofizialordeak Rondilla kalean liskarren aurkako agenteak bertaratzeko eskatu zuen. Jarduketa polizial horren beharra arrazoitzeko aipatu zuen kale horretan pertsona batzuk makilak eta botilak eskuetan ikusi zituela, ustez, A. Lekuona kaleko Elorri tabernaren inguruan apur bat lehenago gertatutako liskar batean parte hartu zutenak, eta liskar horretan zauritu bat egon zen (Oriako Ertzain-etxeko Burutzaren txostena, 242. orr).
Berehala, Oriako Ertzain-etxeko 3X996 furgoneta Zumalakarregi, Soldadu, San Frantzisko eta Rondilla kaleen arteko bidegurutzean jarri zen. Agente uniformatuak oinez, dotazioko ezkutuak zeramatzatela, Elorri tabernaren ingurura abiatu ziren. Polizia-igorgailuaren bidez, ustezko erasotzaileen kokapenari buruzko informazio eguneratua jasotzen ari ziren. Agente uniformatuen unitateak jakinarazi zuen A. Lekuona kalean irainka eta objektuak jaurtitzen ari zitzaizkiela. Ibilgailua aparkatuta zegoen lekura itzultzeko agindua eman zieten; eta hori betetzeko, A. Lekuona kaletik Beotibar kalerantz hasi ziren, eta hortik, Soldadu kalea erabiliz, Foru Plazara egin zuten atzera. 3 Kamerak (Eliza) grabatu zituen agente uniformatuak Soldadu kaletik zihoazela gertatzen ari ziren intzidenteak (grabazioei buruzko txostena, 166. orr. eta 1etik 15era arteko fotogramak).

-2024.02.12. 04:14 - 04:16. Euste-lerroa osatzea.

Kultur Etxean zegoen 4 kameraren grabazioa dela eta, Polizia Zientifikoaren Teknologia Berrien Atalak egindako bideoen azterketa-txostenaren arabera (atestatuaren 309 orritik 312 orrira), 04:14ak inguruan ikusten da bost agente barruan dituen Brigada Mugikorreko bigarren furgoneta bat, atestatuan 4MF15 gisa identifikatutakoa, Soldadu kalearen eta Rondilla kalearen arteko elkargunean kokatzen dela. Foru Plazarako sarbidea den gune horretan hamar agente uniformatuek lehen euste-lerro bat osatu zuten

operador del visionado situado en la Ertzain-etxea de Oria.

- 12.02.2024. 04:11 – 04:16 h. Incidente en la calle A. Lekuona.

Se documenta en el atestado de referencia 468A2400003 que en torno a las 04:11 horas del día 12 de febrero de 2024, el Suboficial responsable del operativo de agentes no uniformados de la Ertzain-etxea de Oria, desplegado en el casco antiguo de Tolosa, solicitó la presencia de agentes antidisturbios en la calle Rondilla. Refiere como causa de la actuación policial la presencia en dicha calle de varias personas portando palos y botellas que habrían participado en una pelea ocurrida en tiempo inmediato anterior en los alrededores del bar Elorri, situado en la calle A. Lekuona en la que resultó herida una persona (Informe de la Jefatura de la Ertzain-etxea de Oria, pág. 242).
Inmediatamente después, la furgoneta 3X996 de la Ertzain-etxea de Oria se sitúa en el cruce de las calles Zumalakarregi, Soldado, San Francisco y Rondilla. Los agentes uniformados, portando escudos de dotación, se dirigen a pie hacia las inmediaciones del Bar Elorri. Por la emisora policial reciben información actualizada sobre la ubicación de los presuntos agresores. Desde la unidad de agentes uniformados se comunica que están sufriendo insultos y lanzamiento de objetos en la calle A. Lekuona. Reciben la orden de regresar al lugar de estacionamiento del vehículo; a este fin, se dirigen desde la calle A. Lekuona a la calle Beotibar; desde ésta, por la calle Soldado, retroceden a la Plaza de los Fueros. La Cámara 3-Iglesia recoge los incidentes que se producen en el trayecto de los agentes uniformados por la calle Soldado (Informe de visionado, pág. 166 y fotogramas 1 a 15).

- 12.02.2024. 04:14 – 04:16 h. Formación de la línea de contención.

El Informe de análisis de vídeos evacuado por la Sección de Nuevas tecnologías de la Policía Científica (págs. 309 a 312 del atestado) correspondiente al visionado de la Cámara 4-Casa de Cultura, recoge que sobre las 04:014 horas una segunda furgoneta de la Brigada Móvil, identificada en el atestado como 4MF15, con cinco agentes, se sitúa en la confluencia de la calle Soldado con la calle Rondilla. En este punto que da acceso a la Plaza Los Fueros, los

eta Soldadu kaletik aurrera egiten hasi ziren. Kale horretan zeuden manifestarien erreakzioaren ondorioz, agenteek atzera egin behar izan zuten Soldadu kalearen eta Foru Plazaren arteko elkarguneraino. Hor batu ziren taldera Oriako Ertzain-etxeko hirugarren furgonetako (3X997) bost agente uniformatuak (4 kameraren grabazioei buruzko txostena, 5, 10, 11, 13 fotogramak).

Denak elkartu ondoren, hamabost agente uniformatuak Soldadu kalean aurrera egiten hasi ziren. Liskarren aurkako dotazioko armak eta munizioak zeramatzaten. Manifestariak Soldadu kalearen eta Beotibar kalearen arteko elkargunean zeuden. Leku hori Soldadu kalearen hasieratik 66 metro ingurura dago eta kale-hasiera horretan osatu zuten agente uniformatuek aurrera egiteko lerroa (grabazioei buruzko txostena. Kartografia-irudia, 229 orr.).

-2024.02.12. 04:14 - 04:18. Liskarren aurkako munizioa erabiltzea. Munizioko jaurtigai batek bi manifestarirengan jotzea.

Barne Arazoetako Burutzak egindako Azalpen Eginbidearen arabera, (atestatuaren 5-14 bitarteko orr.), 4MF15 furgonetaren ardura zeukan Agente lehenak bere unitateko agenteetako bati agindu zion liskarren aurkako munizioko poltsa bati zigilua kentzeko eta dotaziokoa izateagatik zeraman 40 mm-ko jaurtigailua erabiltzeko.

Agente horrek guztira liskarren aurkako munizioko 15 tiro egin zituen, honela banatuta: salba 1, 4 SIR, 8 SIRX, salba 1 eta SIRX 1. Munizio horiek indar maila eta irismen efektibo desberdina daukate eta indar mailarik altuena SIRX munizioak dauka (Barne Arazoetako Burutzaren Eginbidea, 236 orr.)

Ertzaintzaren Polizia Zientifikoak egindako bideoen azterketa-txostenak (atestatuaren 308 eta 312 bitarteko orrialdeak) irudiz irudi deskribatzen du Soldadu kaleko (Tolosa eliza) 3 kameraren grabazioa.

Irudiak ikusita egiazkotzat jo daiteke Soldadu Kalearen eta Beotibar kalearen elkargunean 04:17an berrogeita hamar pertsona inguru zeudelako baieztapena (espedientearen 198 orritik 201era).

Azterketak azaltzen du 04:17:56an irudian lorratz bat ikusten dela, ziur asko liskarren aurkako jaurtigai bat, eta horrek aurpegia maskaraz estalita zeukan gizon baten eskuineko ukondoa

diez agentes uniformados forman una primera línea de contención que inicia el avance por la calle Soldado. Debido a la reacción de los manifestantes situados en dicha calle, los agentes retroceden hasta la confluencia de la calle Soldado con la Plaza de los Fueros. En ese punto se unen al grupo de agentes uniformados los cinco integrantes de una tercera furgoneta, 3X997, de la Ertzain-etxea de Oria (Informe de visionado Cámara 4, fotogramas 5, 10, 11, 13).

Una vez producido el reagrupamiento, los quince agentes uniformados inician el avance por la calle Soldado. Portan dotación de armas y munición antidisturbios. Los manifestantes se encontraban situados en la confluencia de la calle Soldado con la calle Beotibar. Este lugar está situado a alrededor de 66 metros del inicio de la calle Soldado en donde se forma la línea de avance de los agentes uniformados (Informe de visionado. Imagen de cartografía, pág. 229).

- 12.02.2024. 04:14 – 04:18 h. Empleo de munición antidisturbios. Impacto de un proyectil de munición en dos manifestantes.

Según se recoge en la Diligencia de Exposición formulada por la Jefatura de Asuntos Internos (págs. 5 a 14 del atestado) el Agente 1º responsable de la furgoneta 4MF15 ordenó a uno de los agentes de su unidad el desprecintado de una bolsa con munición antidisturbios y el empleo del lanzador de 40 mm que portaba como dotación.

Este agente efectuó un total de 15 disparos de munición antidisturbios, con la siguiente cadencia: 1 salva, 4 SIR, 8 SIRX, 1 salva y 1 SIRX. La diferencia entre las municiones es su grado de contundencia y el alcance efectivo, siendo de mayor contundencia la munición SIRX (Diligencia Jefatura de Asuntos Internos, pág. 236).

El informe de análisis de vídeo realizado por la Policía Científica de la Ertzaintza (págs. 308 a 312 del atestado) describe la reproducción imagen a imagen de la grabación recogida por la Cámara 3, ubicada en la calle Soldado (“Iglesia Tolosa”).

Las imágenes permiten tener por verosímil la afirmación de que eran alrededor de cincuenta personas las que se encontraban concentradas a las 04:17 horas en la zona de confluencia de la calle Soldado con la calle Beotibar (págs. 198 a 201 del expediente).

urratzen edo jo zuela. Gizon hori Soldadu kalean, Beotibar kalearekiko elkargunean, zeuden agente uniformatuen parean zegoen. Pertsona horrek eskua eskuineko besora eraman zuen min-keinua eginez. Geroago, beste zerbaitek jo zuen beste gizon baten aurpegian. Gizon hori, X.P.C moduan identifikatutakoa, 16 urtekoa, lehenago aipatu dugun gizonaren atzean eta ezkerrean zegoen eta eskuan telefono mugikor bat zeukan. Eszena hori ikus daiteke Barne Arazoetako Burutzak egindako grabazioei buruzko txostenarekin batera doazen irudietan (espedientearen 170/206 orrialdeak, 24, 25, 26, 27 eta 28 zenbakiko argazkiak). SOS DEIAKek 04:20an adingabeari osasun-arreta eman zion, baina atestatuan ez dago jasota eragindako lesioaren nondik norakoei buruzko auzitegi-txostena. Ondoriozta daiteke larria dela aipatzen delako jarduketei asistentzia medikoarekin jarraitzeko parte bat batzen zaiela, Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3. zk.ko epaitegiak 2024ko apirilaren 29an emandako Probidentzian jasotakoaren arabera (atestatuaren 316. orr.).

El análisis revela que, a las 04:17:56 horas, se observa en la imagen una estela, probablemente de un proyectil antidisturbios, que roza o golpea el codo derecho de un varón con el rostro cubierto por una máscara, que se encuentra situado frente al grupo de agentes uniformados en la calle Soldado, a la altura de la confluencia con la calle Beotibar. La persona referida se lleva la mano al brazo derecho con gesto de dolor. Seguidamente, algo impacta en el rostro de otro varón, identificado como X.P.C, de 16 años de edad, situado detrás y a la izquierda del anterior, que lleva en la mano un teléfono móvil. La escena puede apreciarse en las imágenes que acompañan al Informe de Visionado realizado por la Jefatura de Asuntos Internos (págs. 170/206 del expediente, fotografías señaladas con los números 24, 25, 26, 27 y 28). El menor es atendido sanitariamente por el servicio SOS DEIAK a las 04:20 horas sin que se recoja en el atestado el informe forense sobre el alcance de la lesión producida. Cabe deducir su gravedad de la referencia a la unión a las actuaciones de un parte de continuidad de la asistencia médica que se recoge en la Providencia dictada con fecha de 29 de abril de 2024 por el Juzgado de Primera Instancia e Instrucción nº 3 de los de Tolosa (pág. 316 del atestado).

-2024.02.12. 04:17ak. <u>40 mm-ko jaurtigailua erabiltzen duten agente uniformatuen taldearen kokapena. Manifestariak dauden lekura arteko distantzia.</u>

-12.02.2024. 04:17 horas. <u>Localización del grupo de agentes uniformados que emplea el lanzador de 40 mm. Distancia hasta el punto en el que se encuentran los manifestantes.</u>

Ordu berean, 04:17:59an, Kultur Etxea- 4 kameraren grabazioan ikusten da formazioan zeuden agente uniformatuen talde bat Soldadu kalearen sarreran zeudela obra-edukiontzi baten ondoan, lehen aipatutako bi gizonak zeuden lekutik 66 metro ingurura. Agente uniformatuak non zeuden jasota dago Barne Arazoetako Burutzak egindako grabazioei buruzko txostenean (espedientearen 207/209 orrialdeak eta 10 eta 11 zenbakiko argazkiak).
Polizia Zientifikoaren Burutzaren Lofoskopia eta Begizko Ikuskapenetako Sekzioaren txostenean jasotzen da ikertzen ari den intzidentean gertatutako tiroa 53,77 metroko distantzia batetik egin zela.

A la misma hora, 04:17:59, la reproducción de la grabación de la Cámara 4-Casa de Cultura permite observar al grupo de agentes uniformados en formación que se encuentra situado en la entrada de la calle Soldado, junto a un contenedor de obra situado a alrededor de 66 metros del lugar donde se encuentran los dos varones anteriormente reseñados. La situación del grupo de agentes uniformados puede comprobarse en el Informe de Visionado realizado por la Jefatura de Asuntos Internos (págs. 207/209 del expediente, fotografías señaladas con los números 10 y 11).
El Informe de la Sección de Lofoscopia e Inspecciones Oculares de la Jefatura de la Policía Científica recoge la apreciación de que el disparo ocurrido en el incidente investigado se realizó a una distancia de 53,77 metros.

-2024.02.12. 04:19:00an. Agente uniformatuek aurrera egitea. Manifestari bat atxilotzea. 40 mm-ko jaurtigailua bigarren aldiz erabiltzea.

Liskarren aurkako jaurtigaiak jaurti ondoren, agente uniformatuen lerroak Soldadu kaletik aurrera egin zuen kale horren eta Beotibar kalearen arteko elkargunetik aurrera.
3 kamerak Soldadu kalean gune horretan jasotako grabazioan, irudiz irudi, agertzen da 04:20:02an zortzi agente uniformatuz osatutako talde bat lurrera bota zirela gizon baten gainean eta gizon horri eskuburdinak jarri zizkiotela, eskuak bizkarrean, eta gero gizon hori atxilotuta eraman zutela oinez Soldadu kaletik. Une horretan bertan, beste zazpi agentez osatutako talde bat Beotibar kalerako sarbidean jarri ziren.
Bigarren talde horretako agente batek gutxienez tiro bat egin zuen liskarren aurkako jaurtigailuarekin. Jaurtigaia, Beotibar kalean, agenteen lerroari aurre eginez zeuden hogeita hamar pertsona inguruko talde baten kontra zihoan (Tolosako elizako grabazioei buruzko txostenaren 29, 30 eta 31 fotogramak, espedientearen 170/206 orrialdeak. Espedientearen 280 orrialdetik 284ra dauden lau argazkiko argazki-txostena).

-12.02.2024. 04:19:00 h. Avance de los agentes uniformados. Detención de un manifestante. Segundo empleo del lanzador de 40 mm.

Tras el lanzamiento de los proyectiles antidisturbios, la línea de agentes uniformados avanza por la calle Soldado hasta superar la confluencia de la misma con la calle Beotibar.
La captación imagen a imagen de la grabación recogida en ese mismo punto por la Cámara 3 en la calle Soldado, recoge el momento -04:20:02 h- en que un grupo de ocho agentes uniformados se proyecta en el suelo sobre un varón que es esposado con las manos a la espalda y, posteriormente, camina detenido por la calle Soldado. En el mismo momento, otro grupo de siete agentes se sitúa en la bocacalle de acceso a la calle Beotibar.
Uno de los integrantes de este segundo grupo de agentes realiza, al menos, un disparo con un lanzador antidisturbios. El proyectil se dirige contra un grupo de alrededor de treinta personas que se encuentran en la calle Beotibar dando frente a la línea de agentes. (Fotogramas números 29, 30 y 31 del Informe de Visionado Iglesia Tolosa, págs. 170/206 del expediente. Informe fotográfico con 4 fotografías obrante a los pags. 280 a 284 del expediente).

**2. Jarduera hauek egin dira:**

-2024.02.13. Eusko Jaurlaritzaren Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburu jaunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginak 17.2 artikuluan ezartzen duen betebeharra betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko buruari hauxe jakinarazi zion: “otsailaren 12an, goizeko 4:10ak aldera, Tolosan Ertzaintzak jarduketa bat egin du agintaritzaren aurkako atentatuaren eta desordena publikoen ustezko delitu bategatik. Jarduketa horretan foam pilotak jaurti dira eta pertsona bat zaurituta atera da; badirudi lesioa foam pilota baten inpaktuaren ondoriozkoa izan daitekeela eta, beraz, deskribatutako jarduketa polizialaren ondoriozkoa”.

-2024.02.14. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontrol eta Gardentasun Batzordeak erabaki zuen Ertzaintzak Tolosan egindako jarduketa ikertzea, Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko

**2. Actuaciones realizadas.**

- 13.02.2024. Por el Sr. Vicelehendari Primero y Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, en cumplimiento de la obligación dispuesta por el artículo 17.2 del Texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco, comunica a la presidencia de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco que el “día 12 de febrero, en torno a las 4:10 de la mañana, ha tenido lugar en la localidad de Tolosa, una actuación de la Ertzaintza, con motivo de un presunto delito de atentado contra la autoridad y desórdenes públicos, consistente en el lanzamiento de pelotas de foam. En el contexto de dicha actuación, una persona ha resultado herida y la lesión, al parecer, puede ser compatible con el impacto de una pelota de foam y, por tanto, con la actuación policial descrita”.

-14.02.2024. La Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco acuerda proceder al estudio sobre la actuación desarrollada por la Ertzaintza en la localidad de

sailburuarengandik jasotako jakinarazpenean aipatutakoa. Horretarako, Batzordeak Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzari hauexek eskatu zizkion:

Tolosa, objeto de la comunicación recibida del Sr. Vicelehendari Primero y Consejero de Seguridad. Con este fin, la Comisión interesa de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

a)Batzordeari helarazteko zuzendaritza organo horrek zaurituaren inguruabar pertsonalei buruz dakiena eta, bereziki, jasandako lesioaren larritasun-mailari eta nondik norakoei buruz dakiena.

a) Se traslade a esta Comisión el conocimiento que tenga dicho órgano directivo sobre las circunstancias personales de la persona lesionada y, singularmente, sobre el alcance y gravedad de la lesión padecida.

b)Identifikatzeko 2024ko otsailaren 12ko goizaldean Tolosan jardun zuten Ertzaintzaren unitate poliziala edo polizialak eta zehazteko horietatik zenbat agente zeuden “foam pilota” motako jaurtigaiak erabiltzeko gaituta.

b) Se identifique la unidad o unidades policiales de la Ertzaintza que actuaron en la madrugada del día 12 de febrero de 2024 en la localidad de Tolosa, con indicación del número de agentes que fueron habilitados para el empleo de los proyectiles señalados como “pelota de foam”.

c)Informatzeko ea indar jarduleak aurretik diseinatuta zituen zer inguruabarrek, gertatuz gero, eragingo zuten Tolosako Inauteri-jaietan foam jaurtigaiak erabili behar izatea; adierazteko otsailaren 12an baliabide hori erabili beharra eragin zuten ekintza zehatzak; informatzeko, halaber, foam jaurtigaiak erabiltzeko erabakia nork hartu zuen, lekuan bertan jarduketa zuzentzen zebilenak ala aginte-kate hierarkikoko beste batek.

c) Se informe si la fuerza actuante contaba con un diseño previo sobre las circunstancias que, de darse, pudieran requerir el empleo de proyectiles de foam en la localidad de Tolosa con ocasión de las fiestas de Carnaval. Con indicación de los hechos concretos que, en la madrugada del día 12 de febrero, determinaron el empleo de este medio. Se informe, así mismo, si la decisión en el empleo de proyectiles de foam se adoptó por quien dirigía la actuación sobre el terreno o, en su caso, fue dispuesta desde otro punto de la cadena jerárquica de mando.

d)Informatzeko jarduketa polizial horri buruzko barruko ikerketa egiteko ezarri diren helburuez.

d) Se informe sobre los objetivos que hayan sido señalados para el desarrollo de la investigación interna sobre dicha actuación policial.

-2024.03.28. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeko buruak Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3. zk.ko epaitegiko titularrari jakinarazi zion Ertzaintzaren jarduketa aztertzen ari zirela, epaitegi horrek hasitako 74/2024 aurretiazko eginbideekin lotutako jarduketa, hain zuzen. Agintaritza judizialari jakinarazi zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea egiten ari zen azterketaren helburua ez zela diziplinako edo zigor arloko erantzukizunik zegoen argitzea edo ikertzea. Hortaz, horrek ez zuen interferentziarik eragingo abian zegoen ikerketa penalean, ezta jarduketa judizialen erreserban ere.

- 28.03.2024. La presidencia de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco comunica al titular del Juzgado de Primera Instancia e Instrucción nº 3 de los de Tolosa la realización de un estudio sobre la actuación de la Ertzaintza que es objeto de las Diligencias Previas incoadas por dicho juzgado con la signatura 74/2024. Se informa a la autoridad judicial que el estudio encomendado a la Comisión de Control y Transparencia no tiene por objeto la investigación ni la depuración de responsabilidades disciplinarias o penales. Por lo que no se aprecia interferencia en la

investigación penal en curso ni en la reserva de las actuaciones judiciales.

-2024.07.05. Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordetzak Batzordeari 468A2400003 erreferentziako atestatua helarazi zion eta horrekin batera horren luzapenak eta eranskinak ere bai, Segurtasun Sailburuordetzaren Barne Arazoetako Burutzak egindakoak.

- 5.07.2024. Por la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad se remite a la Comisión el atestado de referencia 468A2400003 con sus ampliaciones y documentos anexos formulado por la Jefatura de Asuntos Internos de la Viceconsejería de Seguridad.

## 3. Txosten honen helburu diren kontuak

## 3. Cuestiones objeto del presente Informe.

Txosten honek aztertzen duen gertakaria Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginak 17.2 b) artikuluan aurreikusten dituen kasuetako bat da. Hain zuzen, artikulu horren arabera, Batzordearen eginkizuna da ofizioz eta nahitaez ikertzea "poliziaren esku-hartze edo operatiboen testuinguruan edo …, norbait … larriki lesionatzea".

El incidente que es objeto de estudio en el presente informe responde a uno de los supuestos previstos en el artículo 17.2.b) del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco. En concreto, el precepto legal encomienda a la Comisión el estudio de oficio, con carácter preceptivo, de "aquellos incidentes en los que en el contexto de una intervención u operativo policial … se hubiera(n) producido … lesiones graves de una persona".

Segurtasun Sailburuordetzako Barne Arazoetako Burutzak egindako atestatuan, egiaztatutzat jotzen da 2024ko otsailaren 12ko 04:15ak eta 4:20ak bitartean Ertzaintzako hamabost agente uniformatuk parte hartu zuten jarduketa batean, agente horiek Tolosako Soldadu eta Beotibar kaleen arteko elkargunerantz lerro-formazioan zihoazenean, Brigada Mugikorreko agente uniformatu batek jaurtigailu bakar batekin, guztira, liskarren aurkako 15 tiro egin zituela: Soldadu kalean, hain zuzen, salba-kartutxo 1, 4 SIR kartutxo, 8 SIRX kartutxo eta salba-kartutxo bat erabili ziren eta agente berak jaurtigailu beretik azken tiro bat egin zuen, SIRX kartutxo 1, 04:20ak inguruan, Beotibar kalerantz, kale horren eta Soldadu kalearen arteko elkargunetik. Dokumentatuta dago Brigada Mugikorreko agintari operatibo batek jaurtigailuaren munizio-poltsari zigilua kentzeko agindu zuela, eta poltsa horren barruan 8 SIR jaurtigai eta 8 SIRX jaurtigai zeuden.

En el atestado formulado por la Jefatura de Asuntos Internos de la Viceconsejería de Seguridad se considera acreditado que entre las 04:15 y las 0.4:20 horas del día 12 de febrero de 2024, en el curso de una actuación policial desarrollada por un grupo de quince agentes uniformados de la Ertzaintza que avanza en formación de línea por la calle Soldado de Tolosa en dirección a la confluencia con la calle Beotibar, se efectuó por un agente uniformado del operativo de la Brigada Móvil, desde un único lanzador, un total de 15 disparos de munición antidisturbios: en concreto, en la calle Soldado, se emplearon 1 cartucho de salva, 4 cartuchos SIR, 8 cartuchos SIRX y 1 cartucho de salva; un último disparo de 1 cartucho SIRX se produjo por el mismo agente y desde el mismo tirador sobre las 04:20 horas en dirección a la calle Beotibar desde el punto de intersección de la misma con la calle Soldado. Está documentado que la orden de desprecintar la bolsa de munición del lanzador que contenía 8 proyectiles SIR y 8 proyectiles SIRX fue efectuada por el mando operativo de la Brigada Móvil.

Esku hartze polizialaren helburua zen Soldadu kalean zegoen pertsona bat atxilotzea; uniformerik gabeko agenteen unitate batek azaldu omen baitzuen pertsona horrek aktiboki parte hartu zuela berrogeita hamar gazte inguruz

La intervención policial tenía como objeto proceder a la detención de una persona situada en la calle Soldado que habría sido señalada por una unidad de agentes no uniformados como participante activo en el desarrollo de unas actuaciones de oposición violenta a la presencia

osatutako talde heterogeneo batek poliziaren aurka burutu zituen indarkeriazko jarduketetan.

Liskarren aurkako materiala erabili zuten agente jarduleen taldearen une horretako kokapena eta bideoz grabatutako irudietan ikusten den X.P.C adingabearen mugimendua denboraren zein lekuaren aldetik bat datoz; eta horri esker Ertzaintzaren Polizia Zientifikoak ezar dezake 04:17:56an adingabe hori Soldatu eta Beotibar kaleen arteko elkargunean zegoela eta, une horretan, foam jaurtigaia izan zitekeen objektu batek bere begian jo zuela, aurpegia estalita zeukan pertsona baten eskuineko ukondoa urratu edo jo ondoren, pertsona hori adingabe lesionatuaren aurrean eta eskuinean baitzegoen. Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3. zk.ko epaitegiaren 2024ko apirilaren 29ko Probidentzian asistentzia medikoarekin jarraitzeko parte bat dokumentatuta dago eta horregatik ondorioztа daiteke lesioa larria dela.

Instruktorea atestatuan instruitutako jarduketetan oinarritu da eta, bereziki, 3 eta 4 kameren (Tolosako Soldadu eta Arostegieta kalekoak, hurrenez hurren) grabazioei buruzko txostenen azterketan, baita Polizia Zientifikoak 2024ko martxoaren 27an emandako balistikako aditu-txostenean ere.

policial en las que participó un grupo heterogéneo de alrededor de cincuenta jóvenes.

La conexión temporal y espacial entre la ubicación del grupo de los agentes actuantes del que proviene el empleo de material antidisturbios y el reflejo en las imágenes videograbadas del movimiento del menor X.P.C, permite a la Policía Científica de la Ertzaintza establecer que a las 04:17:56 horas dicho menor, situado en el punto de confluencia entre la calle Soldado y la calle Beotibar, fue impactado en un ojo por un objeto compatible con un proyectil foam que previamente habría rozado o golpeado el codo derecho de una persona con el rostro cubierto situada delante y a la derecha del menor lesionado. La gravedad de la lesión producida se deduce del parte de continuidad en la asistencia médica documentado en la Providencia dictada con fecha de 29 de abril de 2024 por el Juzgado de Primera Instancia e Instrucción nº 3 de los de Tolosa.

La apreciación del Instructor se funda en las actuaciones instruidas en el atestado y, singularmente, en el estudio de los informes de visionado de las Cámaras números 3 y 4 situadas respectivamente en las calles Soldado y Arostegieta de Tolosa, así como en el informe pericial de balística emitido por la Policía Científica con fecha de 27 de marzo de 2024.

Batzorde honi dagokio - Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bateginaren 20. artikulua- polizia-jarduketaren zuzentasunaren ebaluazioa egitea. Kontrastatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuneko sailburuordearen 073 Instrukzioa erabiliko da, 03 berrikusketa, 2021eko martxoaren 24koa, armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoa.

Corresponde a esta Comisión – artículo 20 del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco- llevar a cabo una evaluación de la corrección de la actuación policial. Se empleará como normativa de contraste la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad del Gobierno Vasco, Rev. 03, de 24 de marzo de 2021, sobre regulación del uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios.

## 4.Liskarren aurkako munizioa erabili zen polizia-jarduketaren zuzentasunaren ebaluazioa

## 4. Evaluación de la corrección de la actuación policial en cuanto al empleo de munición antidisturbios

### 4.1 Unitate jarduleak eta erabilitako baliabideak.

Barne Arazoetako Burutzak instruitutako atestatuan dokumentatuta dauden jarduketei begiratuta, ondorioztatzen da Oriako Ertzain-etxeko Burutzak ekintza-plan bat diseinatu zuela

### 4.1 Unidades actuantes y medios empleados.

De las actuaciones documentadas en el atestado instruido por la Jefatura de Asuntos Internos se sigue que por la Jefatura de la Ertzain-etxea de Oria se diseñó un Plan de

Tolosako 2024ko Inauteri-jaietan gertakariak prebenitzeko eta horietan esku hartzeko. Plan horren parte zen bost bideokamera instalatzea, Oriako Ertzain-etxeko Aginte eta Kontrol Zentroko harrera gelan irudiak ikusi ahal izateko 2024ko otsailaren 7ko 00:00etatik 2024ko otsailaren 15eko 23:59etara. Kameren instalazioa Ertzaintzaren zuzendariaren 2023ko abenduaren 18ko ebazpenaren bidez baimendu zen.

2024ko otsailaren 12ko 04:11k eta 04:22ak bitartean, Tolosako Soldadu kalean egindako esku hartze polizialean hamabost agente uniformatuk parte hartu zuten: Oriako Ertzain-etxeko hamar agente eta Brigada Mugikorreko bost agente. Agente guztiek zeramatzaten, dotazioko material gisa, kasko bat, bi ezkutu, bastoi poliziala eta erregelamenduzko arma. Brigada Mugikorreko agente batek, dotazio gisa, foem jaurtigaien jaurtigailu bat eta horretarako munizioa ere bazeramatzan. Esku hartze hori Tolosako alde zaharrean zeuden uniformerik gabeko agenteek eskatu zuten, aurretik onartutako ekintza-planean aurreikusitako protokoloari jarraituz.

acción para la prevención e intervención de incidentes durante las fiestas de Carnavales de Tolosa de 2024. El Plan incluyó la instalación de cinco videocámaras para la visualización de imágenes en la Sala de recepción del Centro de mando y control de la Ertzain-etxea de Oria entre las 00:00 horas del día 7 de febrero de 2024 y las 23:59 horas del día 15 de febrero de 2024. La instalación de las cámaras fue autorizada por resolución de la Sra. Directora de la Ertzaintza de 18 de diciembre de 2023.

En la intervención policial desarrollada en la calle Soldado de Tolosa entre las 04:11 y las 04:22 horas del día 12 de febrero de 2024, intervinieron quince agentes uniformados: diez agentes de la Ertzain-etxea de Oria y cinco agentes de la Unidad de Brigada Móvil. Todos los agentes llevaban como material de dotación casco, dos escudos, bastón policial y arma reglamentaria. La dotación de uno de los agentes de la Brigada Móvil incluyó un lanzador de proyectiles de foam con la correspondiente munición. La intervención había sido requerida por los agentes no uniformados presentes en el casco antiguo de Tolosa siguiendo el protocolo previsto en el Plan de acción previamente aprobado.

Balistikako txostenaren arabera, liskarren aurkako HK169 40MM S/N 259-000341 jaurtigailua erabili zen eta munizio hau bota zen: 2 salba-kartutxo, irismen laburreko 4 SIR jaurtigai- distantzia laburretan ere kalte gutxiago eragiteko diseinatuta, gutxienez 5 metrotik botatzeko- eta irismen luzeko 8 SIR-X jaurtigai – kalte gehiago eragiteko parametroekin diseinatuta, distantzia-tarte handiago batean eta gutxienez 35 metrotik botatzeko-.

Jaurtigailuak tiro bakarreko sistema bat zeukan, katua blokeatzen duen aseguru bat eta punteria elektronikoko sistema optiko bat ere bai. Armaren tiro-sistemak eta aseguruak behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu da.

Balistikako aditu-txostenetik ondorioztatzen da laborategi-frogak egiten diren bitartean, askotan, jaurtigaiek elementu solido bat jo ondoren, beste norabide batzuetan errebotatzen dutela, ausaz.

Polizia Zientifikoaren Burutzaren Lofoskopia eta Begizko Ikuskapenetako Sekzioaren txostenak esaten du ikertzen ari den tiroa, Soldadu kaleko gertakarietan botatakoa, 56,87 metroko distantziatik egin zela.

Se recoge en el Informe de Balística que el arma empleada fue un Lanzador Antidisturbios HK169 40MM S/N 259-000341 y la munición percutida fue: 2 cartuchos de salva, 4 proyectiles SIR de corto alcance -diseñados con parámetros de menor lesividad, incluso en las distancias cortas, con una distancia mínima de 5 metros- y 8 proyectiles SIR-X de largo alcance -diseñados con parámetros de mayor lesividad, en un rango superior de distancia, con una distancia mínima de 35 metros-.

El lanzador estaba dotado de un sistema de disparo monotiro y seguro que bloquea el disparador, además de un sistema óptico de puntería electrónica. Habiéndose comprobado que los sistemas de disparo y seguro del arma funcionan correctamente.

Se sigue del informe pericial de balística que durante la realización de las pruebas de laboratorio, en numerosas ocasiones, los proyectiles después de impactar en un elemento sólido rebotan en direcciones aleatorias.

El Informe de la Sección de Lofoscopia e Inspecciones Oculares de la Jefatura de la Policía Científica dictamina que el disparo objeto de investigación percutido en el incidente de la

**4.2 Liskarren aurkako materialaren erabilera egokia, salbuespen-, proportzionaltasun- eta egokitasun-printzipioei begira**

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuneko sailburuordearen 073 Instrukzioaren 4. atalean (liskarren aurkako jarduketetan materiala erabiltzeko arauak) ezarritakoa kontuan hartuta, atestatuaren instruktoreak Brigada Mugikorreko Burutzari eskatu zion Brigada Mugikor horretako unitate jardulearen jarduketari buruzko informazioa emateko. Besteak beste, datu hauek emateko eskatu zion:

"10. Erabiltzeko jarraibideak. Aldez aurretik liskarren aurkako materialaren erabilerari buruzko aginduak eman baziren, zer jarraibide eman ziren, nork eman zituen eta nola helarazi zitzaizkien operatiboko kideei.

"11. Jarduketaren sekuentzia behin gertakariak hasita: nortzuek hartu zuten liskarren aurkako materiala erabiltzeko erabakia. Agintari hierarkiko horiek identifikatzeko eta une horretan emandako aginduak eta inguruabarrak jasotzen dituen txostena aurkezteko. Haren kargura zeuden polizien betetze-maila".

Erantzun gisa, Brigada Mugikorreko Burutzak Instruktoreari Atalen arteko Koordinazio Burutzak emandako txostena helarazi zion eta txosten horretan bakarrik aipatzen da, labur-labur, 073 Instrukzioak (armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoa) ezarritako jarraibideei jarraitu zitzaiela. Koordinazio Burutzak erantzunarekin batera bidali zuen baliabidearen ardura eduki zuen Agente Lehenak 2024ko otsailaren 16an egindako txostena. Horretan jasotzen da agintean zegoen agente horrek agindu zuela jaurtigailua erabiltzeko, lehenengo salba tiro bat eta gero, agenteen aurkako erasoek jarraitzen zutenez, "erasotzaileei jaurtigailuarekin SIR tiroak" egiteko esan zuen.

Era berean, dotazio bereko bigarren Agente Lehenak 2024ko ekainaren 3ko jarduketetan emandako deklarazioetan azaldu zuenaren arabera, haien aurka objektuak jaurtitzen jarraitzen zutenez, agintea zeukan Agente Lehenak: "… jaurtigailu bat erabiltzeko agindu

calle Soldado, se realizó a una distancia de 56,87 metros.

**4.2. Adecuación del uso de material antidisturbios a los principios de excepcionalidad, proporcionalidad e idoneidad.**

Atendiendo a las exigencias del apartado 4 - Normas de uso del material en actuaciones antidisturbios- de la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad del Gobierno Vasco, el día 14 de febrero de 2024, el Instructor del atestado interesó de la Jefatura de la Unidad de la Brigada Móvil la aportación de información sobre la actuación de la unidad actuante de dicha Brigada Móvil. Entre otros extremos se requirió la facilitación de los siguientes datos:

"10. Pautas de utilización. Si se impartieron órdenes previas sobre el uso del material antidisturbios, cuáles fueron estas instrucciones, quién y cómo fueron transmitidas a los componentes del operativo.

"11. Secuencia de actuación una vez comienzan los incidentes: quién o quiénes asumen la decisión de emplear el material antidisturbios. Identificación de dichos mandos jerárquicos e informe donde se recojan las circunstancias y órdenes transmitidas en dicho instante. Grado de cumplimiento por parte del personal policial a su cargo".

Por toda respuesta, la Jefatura de la Unidad de la Brigada Móvil remite al Instructor el informe emitido por la Jefatura de Coordinación de Secciones en el que se limita a manifestar, escuetamente, que se han seguido las pautas dispuestas por Instrucción 073 para el uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios. La Jefatura de Coordinación acompaña a la respuesta el informe emitido con fecha de 16 de febrero de 2024 por el Agente Primero responsable del recurso. En el mismo se consigna que fue dicho agente al mando quien ordenó el uso del lanzador consistente en un primer disparo de salva y, ante la insistencia en la agresión a los agentes, dispuso la realización de "disparos de lanzador sir a los agresores".

A su vez, el segundo Agente Primero de la misma dotación en la declaración prestada en las actuaciones con fecha de 3 de junio de 2024 manifiesta que, al no cesar el lanzamiento de objetos, el Agente Primero al mando: "… ordenó

zuen, lehenengo salba bat, baina horrek ez zuen lortu objektuak jaurtitzeari uztea eta, hori dela eta, SIR eta SIRX FOAM jaurtigailuak erabiltzeko agindu zuen, agenteen aurka jaurtitzeko asmoz eskuetan botilak eta objektuak zeramatzaten pertsonei tiro egiteko".

2024ko otsailaren 12ko goizaldean liskarren aurkako materialaren erabilerari buruzko ebaluazioa egitean begiratu behar zaie, kontraste-arau moduan, salbuespen-, proportzionaltasun-, egokitasun- eta kaltegarritasun txikienaren printzipioei; horiek berariaz jasota baitaude, indarraren erabilerari buruzko printzipio orokor gisa, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuneko sailburuordearen 073 Instrukzioan – 3. berrikusketa, 2021eko martxoaren 24koa, armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoa-.

Beotibar kalean izandako borroka baten ondoren, borroka horren ondoriozko larri zauritu bat zegoela jakinda, herritarren segurtasuna berrezartzeko helburuarekin jardutea salbuespenezko egoeratzat har daiteke -instrukzioaren 4.1.2 artikulua- eta legitimatzen du Oriako Ertzain-etxeko lehen bost agente uniformatuak gertakariaren lekuan bertaratzea.

Lehen unitate horrek Soldadu kalearen hasierara atzera egin behar izan zuen agenteek jasandako erasoengatik eta horrek ere balio du legitimatzeko, salbuespenezko egoerez ari garela, gertakarien lekura beste bi unitate gehiago bidaltzea, hamar agente uniformatuz osatutakoak eta liskarren aurkako baliabideekin.
Soldadu eta Beotibar kaleen artean zeuden berrogeita hamar pertsona inguruko talde batek erasotzen jarraitu zuenez, proportzionaltzat jo daiteke unitate horietako bat, Brigada Mugikorreko unitatea, liskarren aurkako HK169 40MM jaurtigailu batez eta zegokion munizioaz (16 foam jaurtigai: 8 SR intentsitatekoak eta 8 SRX intentsitatekoak) hornitzea.

Era berean, Brigada Mugikorreko arduradun operatiboak liskarren aurkako materiala erabiltzeko agindu izana egokitzat jo daiteke, atestatuarekin lotutako jarduketetan aztertu den material bideografikoaren bidez egiaztatu ahal izan diren hiru kontu hauengatik:

hacer uso de un lanzador, primero con salva, lo que no hizo que cesaran los lanzamientos de objetos y, ante esta situación, ordenó el uso de proyectiles FOAM SIR y SIRX, para que se disparase a las personas que portaban botellas y objetos en las manos, con intención de lanzárselas a los agentes ".

La evaluación en cuanto al empleo del material antidisturbios en la madrugada del día 12 de febrero de 2024 debe atender, como norma de contraste, a los principios de excepcionalidad, proporcionalidad, idoneidad y menor lesividad expresamente consignados como principios generales sobre el uso de la fuerza en la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad del Gobierno Vasco, Rev. 03, de 24 de marzo de 2021, sobre regulación del uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios.

La finalidad de restablecimiento de la seguridad ciudadana alterada por el desarrollo en la calle Beotibar de una pelea en la que se tenía noticia sobre la existencia de una persona herida de consideración define un supuesto excepcional – artículo 4.1.2 de la Instrucción- legitimante de la presencia en el lugar del incidente de los cinco primeros agentes uniformados de la Ertzain-etxea de Oria.

Las agresiones recibidas por los agentes que determinaron el repliegue de esta primera unidad a la zona de inicio de la calle Soldado resultó, así mismo, legitimante, en términos de excepcionalidad, de la posterior ampliación de la fuerza actuante con dos unidades más integradas por diez agentes uniformados dotados de recursos antidisturbios.
La continuidad de los incidentes de agresión por parte de un grupo de cincuenta personas situados en las calles Soldado y Beotibar permite calificar de proporcional el que se dotara a una de estas unidades, la correspondiente a la Brigada Móvil, de un Lanzador Antidisturbios HK169 40MM, con munición consistente en 16 proyectiles de foam, 8 de intensidad SR y 8 de intensidad SRX.
A su vez, cabe apreciar la idoneidad de la orden de empleo del material antidisturbios dada por el responsable operativo de la unidad de la Brigada Móvil con fundamento en tres circunstancias constatadas en el material

videográfico analizado en las actuaciones del atestado:

a)Bide publikoko zein lekutan gertatu den – alde zaharrean gurutzatzen diren kaleen lauki-sarea.

a) el lugar de la vía pública -cuadrícula de calles entrecruzadas del casco antiguo- en el que se desarrollan los hechos,

b)Berrogei pertsona inguruko talde bateko kide batzuk Soldadu kaletik aurrera egiten ari zen agenteen lerroaren aurka botilak eta beste objektu batzuk etengabe botatzen ari ziren. Eraso horiek poliziei eragozten zieten beren helburua betetzea: uniformerik gabeko agenteek liskarretan aktiboki parte hartzen ikusi zituzten pertsonak atxilotzea.

b) el ininterrumpido lanzamiento de botellas y otros objetos contra la línea de agentes que avanza por la calle Soldado por parte de algunos componentes de un grupo de alrededor de cincuenta personas. Esta actuación impedía alcanzar el objetivo de la acción policial referido a la detención de las personas señaladas por los agentes no uniformados como participantes activos en los disturbios; y,

c)Eta hirugarrenez, tiroak Soldadu kalean bilduta zeuden pertsonengandik 56,87 metrora egin ziren eta hori 073. Instrukzioak ezartzen duen gutxieneko tartea baino handiagoa da; izan ere, Instrukzio horren arabera, inpaktu-intentsitate handiagoko SRX jaurtigaia segurtasunez erabiltzeko agente jaurtitzailearen eta objektiboaren artean gutxienez 35 metro egon behar dira.

Zauritua izan zenaren aurrean zegoen gazteak besaurrean, gorputz-enborraren altueran, jaso zuen jaurtigaiaren inpaktua; eta horrek egiaztatzen du 40 mm-ko jaurtigailua erabiltzeko jarraibideak bete zirela; izan ere, jarraibideen arabera ekidin behar da arma burura, lepora edo gorputzeko leku sentiberagoetara eta babesgabeagoetara zuzentzea – 073 Instrukzioaren 4.3.2 artikulua-.

c) en tercer lugar, la distancia de 56,87 metros desde la que se producen los disparos respecto de la ubicación de las personas congregadas en la calle Soldado, netamente superior a la distancia mínima de 35 metros entre el agente que emplea el lanzador y el objetivo que se prescribe en la Instrucción nº 73 para la utilización en condiciones de seguridad del proyectil SRX de mayor intensidad de impacto.

El hecho de que el joven situado delante del posteriormente herido recibiera el inicial impacto del proyectil en el antebrazo situado a la altura del torso, confirma que se siguió la pauta de uso del lanzador de 40 mm que prescribe que debe evitarse dirigir el arma sobre la cabeza, el cuello o sobre otras zonas más sensibles y desprotegidas del cuerpo -artículo 4.3.2 de la Instrucción nº 073-.

**4.3 SRX foam jaurtigaien erabilera desegokia, kaltegarritasun txikienaren printzipioari begira.**

**4.3 Inadecuación del empleo de los proyectiles foam SRX al principio de menor lesividad.**

Hala ere, jasota utzi behar da ebaluatu den jarduketa poliziala ez zela egokia izan SRX foam jaurtigaiak erabiltzean kaltegarritasun txikienaren printzipioa betetzeko – Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuneko sailburuordearen 073. Instrukzioaren 4.1.5 artikulua, 03. berrikusketa, 2021eko martxoaren 24koa, armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoa. Printzipio orokor horren arabera, indarra erabiltzea beharrezkoa denean, jarduketa polizialak helburu dituen pertsonei “ahalik eta kalterik txikiena”

Por el contrario, debe constarse la inadecuación de la actuación policial evaluada al principio general de menor lesividad en el empleo de los proyectiles foam SRX -artículo 4.1.5 de la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad del Gobierno Vasco, Rev. 03, de 24 de marzo de 2021, sobre regulación del uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios-. De acuerdo con este principio general, cuando sea necesario el empleo de la fuerza debe procurarse ocasionar el “menor daño posible” a las personas contra

eragiten ahalegindu behar da. Printzipio orokor horren arabera, beraz, kaltegarritasun txikiagoko -SR- edo handiagoko -SRX- foam jaurtigaien artean aukeratu behar denerako, Oriako Ertzain-etxeko Aginte eta Kontrol Zentrotik Brigada Mugikorraren agintea zeukan agenteari aldez aurretik eman beharko zitzaizkion foam jaurtigai mota desberdinak erabiltzeko jarraibideei buruzko aginduak; eta, era berean, agintea zeukan agenteak jarduteko jarraibide horiek esplizituki azaldu beharko zizkion jaurtigailua zeraman agenteari jaurtigaiak disparatu aurretik.
Brigada Mugikorreko Burutzak ez zuen Instruktoreak eskatutako justifikazioa aurkeztu, alderdi hauei buruzkoa: disparatutako jaurtigai kopurua dela eta, erabilera-jarraibideak; eta kaltegarritasun maila handiagoko edo txikiagoko foam jaurtigaien erabilera dela eta, agentearen jarduketaren sekuentzia. Hori dela eta, ondorioztatzen da jaurtigailua erabili zuen agenteak ez zeukala horren erabilerari buruzko jarraibide zehatzik eta, jarraibide horiek ezean, ausaz hautatu zuela SR eta SRX jaurtigaien artean, kaltegarritasun handiagoko jaurtigaiak erabiltzeko gaitzen zuten inguruabarrak ezagutu gabe.
Jarduteko modu hori desegokitzat jo behar da Segurtasuneko sailburuordearen 073 Instrukzioak, armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoak, ezartzen duen araudiarekiko.

las que se proyecta la actuación policial. Siguiéndose de este principio general que en la alternativa entre el uso de proyectiles foam con parámetros de menor -SR- o mayor -SRX- lesividad, desde el Centro de mando y control de la Ertzain-etxea de Oria debió de facilitarse al agente al mando de la Unidad de la Brigada Móvil órdenes previas sobre las pautas de utilización de los distintos tipos de proyectiles foam; y, a su vez, el agente al mando debió transmitir de manera explícita estas pautas de actuación al agente que portaba el lanzador antes de proceder al disparo de los proyectiles.
La no aportación por la Jefatura de la Brigada Móvil de la justificación requerida por el Instructor sobre las pautas de utilización en relación con el número de proyectiles disparados y sobre la secuencia de actuación por parte del agente en cuanto al empleo de proyectiles foam de uno u otro potencial lesivo permiten establecer que el agente que empleó el lanzador no contaba con ninguna pauta concreta en el empleo del mismo y, en su defecto, dispuso arbitrariamente en la selección de los proyectiles SR y SRX sin que se lleguen a conocer las circunstancias que habilitaban, en su caso, el empleo de los proyectiles de mayor potencial lesivo.
Debiéndose tener esta forma de actuación como disconforme con la normativa dispuesta por la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad, sobre regulación del uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios.

## 5.Prebentziozko neurrien proposamena

Aurreko ataletan aztertutako alderdiak eta egindako balorazioak kontuan hartuta, Batzorde honek, jarduketa polizialaren gaineko kontrolak hobetzeko, ildo hauek proposatu nahi ditu:

**5.1 Armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoa den Segurtasuneko sailburuordearen 073 Instrukzioaren 4.1.5 artikulua berrikustea. Kaltegarritasun txikienaren printzipioaren definizioa.**
Armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoa den Segurtasuneko sailburuordearen 073 Instrukzioak (03 berrikusketa) 4.1.5 artikuluan kaltegarritasun txikienaren printzipioa definitzen du helburu finalistiko gisa, beren burua indarra erabiltzera behartuta ikusten duten

## 5. Propuesta de medidas preventivas

A la vista de las cuestiones analizadas y las valoraciones realizadas en los apartados anteriores, esta Comisión propone las siguientes líneas de mejora en los controles de la actividad policial:

**5.1 Revisión del artículo 4.1.5 de la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad, sobre regulación del uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios. Definición del principio de menor lesividad.**

El artículo 4.1.5 de la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad, sobre regulación del uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios, en su Revisión 03, define el principio de menor lesividad como un objetivo finalístico que se predica y exige, estrictamente, de la actitud y la voluntad de los

agenteen jarrerarekin eta borondatearekin estuki lotuta aldarrikatzen eta exijitzen dena.
Hala ere, indarraren erabilera kaltegarritasun handiagoko edo txikiagoko jaurtigaiak – salba kartutxoak eta SR eta SRX jaurtigaiak- erabiltzearekin lotuta dagoenean, ulertu behar da helburua lortzeko kaltegarritasun txikienaren alde egitearen erantzukizuna ezin dela bere osotasunean agente jarduleen borondatearen esku utzi; aitzitik, erantzukizun hori zuzendaritza organoari ere argi eta garbi aldarrikatu eta exijitu behar zaio, organo horrek ezarri behar baititu agintean dagoen agenteak 40 mm-ko jaurtigailua eramaten duten agenteei helarazi behar dizkien aginduak eta jarraibideak.
Hori dela eta, komeniko litzateke kaltegarritasun txikienaren printzipioaren definizioaren barruan erantzukizun hauei buruzko araudi proposamen bat sartzea: batetik, zuzendaritza organoari dagokion erantzukizuna, unitate jardulearen agintea daukan agenteari liskarren aurkako materialaren erabilerari buruzko aldez aurretiko aginduak emateko; eta bestetik, agintean dagoen agenteari dagokion erantzukizuna, operatiboko kideei jarduketan agindu zehatzak, helburua kaltegarritasun txikienarekin lortzera bideratutakoak, helarazteko.

**5.2 Armen, munizioen eta liskarren aurkako beste elementu batzuen erabilera eta kontrola arautzekoa den Segurtasuneko sailburuordearen 073 Instrukzioaren 4.3.2 artikulua berrikustea. SRX jaurtigaiak erabiltzeko sekuentziari buruzko jarraibideak sartzea.**

073 Instrukzioaren 4.3.2 artikuluaren helburua da 40 mm-ko jaurtigailua erabiltzeko jarraibideak normatibizatzea. Horrek 40 mm-ko jaurtigailuarekin erabiltzeko hiru munizio mota deskribatzen ditu – salba kartutxoak, SR eta SRX-, eta horrez gain jasotzen du salba kartutxoa nola erabili beharko litzatekeen, SR eta SRX jaurtigaien deskribapena eta tiroa ezin dela burura, lepora edo gorputzeko beste atal sentsible eta babesgabeetara zuzendu.

Batzorde honen iritziz aipatutako arau horrek berariazko jarraibideak jaso beharko lituzke alderdi hauei buruz:

agentes que se ven compelidos por la necesidad en el empleo de la fuerza.
Sin embargo, cuando la fuerza a emplear consiste en el disparo de proyectiles con un distinto grado de potencial lesivo -cartuchos de salva y de proyectiles SR y SRX- cabe entender que no es solo la voluntad de los agentes ejecutantes la que completa la asunción de responsabilidad en la obtención del objetivo de la “menor lesividad” sino que dicha responsabilidad debe también predicarse y exigirse, de manera muy determinante, del órgano directivo encargado de definir las órdenes o indicaciones a transmitir por el agente al mando a los agentes portadores del lanzador de 40 mm.
Convendría, por ello, introducir en la definición del principio de menor lesividad una proposición normativa sobre la responsabilidad del órgano directivo en la impartición al agente al mando de la unidad actuante de órdenes previas generales sobre el uso del material antidisturbios; así como de la responsabilidad del agente al mando tanto en la transmisión a los componentes del operativo durante el desarrollo de la actuación de órdenes concretas enderezadas a la obtención del fin de la “menor lesividad” que se persigue.

**5.2 Revisión del artículo 4.3.2 de la Instrucción nº 073 del Viceconsejero de Seguridad, sobre regulación del uso y control del armamento, munición y otros elementos antidisturbios. Inclusión de pautas sobre la secuencia en el empleo de los proyectiles SRX.**

El artículo 4.3.2 de la Instrucción nº 073 tiene por objeto la normativización de las pautas para el uso del lanzador de 40 mm El precepto describe los tres tipos de munición que permite el uso del lanzador de 40 mm – cartuchos de salva, SR y SRX- y, también, así como el supuesto de empleo del cartucho de salva, la descripción de los proyectiles de la munición SR y SRX y la restricción en cuanto a la dirección del disparo a la cabeza, cuello y demás zonas sensibles y desprotegidas del cuerpo.

A juicio de esta Comisión, el precepto señalado debiera incluir pautas expresas sobre:

a) Zer inguruabarrek legitimatzen duten salba kartutxoak erabiltzeari uztea jaurtigaiak dituzten kartutxoak erabiltzen hasteko eta, bereziki,

b) SR eta SRX munizioa txandaka edo elkarren jarraian erabiltzeko sekuentzia; eta berariazko agindu bat jaso beharko luke SRX jaurtigaien ausazko erabilera debekatzeko.

a) las circunstancias que legitiman el paso del empleo del cartucho de salva al de cartuchos con proyectiles y, muy singularmente,

b) sobre la secuencia en el uso alternativo o sucesivo en el empleo de la munición SR y SRX con una prescripción expresa que vede el empleo a discreción de los proyectiles SRX.

Certificación del acuerdo adoptado en la reunión del día 16 de diciembre de 2024, por el que se aprueba el Informe correspondiente al Expediente 1/2024.
Y parar que así conste se expide la presente por el Sr. Secretario de la Comisión, en el lugar y fecha de la firma digital.

FRANCISCO JAVIER HERNAEZ MANRIQUE
Firmado digitalmente por FRANCISCO JAVIER HERNAEZ MANRIQUE
Fecha: 2024.12.26 12:56:36 +01'00'

COMISIÓN CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO
Firmado digitalmente por COMISIÓN CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO
Fecha: 2024.12.26 12:57:25 +01'00'